


ARABAKO UDALERRIETAKO  
HIRIGINTZA PLANGINTZAN GENERO  
IKUSPEGIA TXERTATZEKO GIDA



GENERO  
iKUSPEGi



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava

# ARABAKO UDALERRIETAKO HIRIGINTZA PLANGINTZAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEKO GIDA

## **Argitaraldia**

Arabako Foru Aldundia  
Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saila  
Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzua

## **Diseinua**

Zados | Comunicación Global y Eventos

## **Argitalpen data**

2025eko abuztua



# AURKIBIDEA

## 1. SARRERA

### SIGLAK

## 2. XEDEA

## 3. LEGE ETA ARAU ESPARRUA

### 3.1. BERDINTASUNARI ETA HIRIGINTZARI BURUZKO ESTATUKO ARAUDIA

### 3.2. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ARAUDIA

## 4. GENERO IKUSPEGIA DUEN HIRIGINTZA

### 4.1. GENERO IKUSPEGIA DUEN HIRIGINTZAREN AREAK

### 4.2. ESKU HARTZEKO FUNTSEZKO EREMUAK GENERO IKUSPEGIA DUEN HIRIGINTZA PLANGINTZAN

## 5. ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN BEREZITASUNAK

## 6. GENERO IKUSPEGIA PLANGINTZAREN IZAPIDETZEAN TXERTATZEA

### FASE 1: AURREKO JARDUKETAK

### FASE 2: AURRERAPENA

### FASE 3: HASIERAKO ONESPENA

## **ERANSKINA.** HAPO-ARI BURUZKO HERRITARREN INKESTA, GENERO IKUSPEGITIK

# 1. SARRERA

Gaur egun, garapen sozial, ekonomiko eta politikoaren funtsezko osagaia da giza bizitzaren eremu guztietan genero ikuspegia txertatzea. Zeharkako ikuspegia da, eta pixkanaka aberastu egin du politika publiko eta pribatuen formulazioa, gauzatzea eta ebaluazioa, eta gizarte bidezkoagoak eta berdintasunezkoagoak eraikitzen lagundu du.

Testuinguru horretan, ezinbestekoa da genero ikuspegia txertatzea sektore publikoak zein pribatuak sustatutako plan, programa eta jardueretan, berdintasunerako eskubidea benetan aplikatzen dela bermatzeko, Europako, Estatuko eta autonomia erkidegoko arauak ezartzen duten bezala.

Hirigintzari aplikatutako genero ikuspegiak hiri eta landa inguruneak emakumeek eta gizonen hiri espazioarekin duten elkarreragina kontuan hartuta diseinatzeko aukera ematen du. Lurraldearen konfigurazio fisikoak eragin erabakigarria du eguneroko bizitzako funtsezko alderdietan, hala nola mugikortasunean, irisgarritasunean, ekipamenduen erabileran, gizarte harremanetan eta segurtasun pertzepzioan, besteak beste.

Era berean, hirigintza plangintzako tresnak xedapen orokorrak direnez, genero eraginaren ebaluazioa egiteko eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak zuzentzeko eta ekitatea sustatzeko neurriak hartzeko legezko betebeharra dute.

Hirigintza plangintzak kontuan hartu behar ditu gizonen eta emakumeen artean espazioaren erabileran dauden desberdintasunak, mugikortasun eredu desberdinekin, eta irtenbideak eman behar ditu zenbait espazio publikotan segurtasunik eza eta arriskuaren pertzepzioa arintzeko, irisgarritasun unibertsala lortzeko, zainketen azpiegitura kontuan hartzeko, zerbitzuak ekitatez eskuratzeko, etab.

Jarduketa esparru horretan, Arabako Foru Aldundiak, ekitatezko lurralde garapenarekin duen konpromisoan, hirigintza plangintzan genero ikuspegia txertatzeko gida hau egitea bultzatzen du. Dokumentu hau hirigintza plangintzan diharduten idazketa taldeei, tokiko erakundeei eta profesionaleri zuzendutako tresna tekniko bat da.

Gida honen azken helburua lurralde eredu orekatu baterantz aurrera egitea da. Eredu hori herritar guztientzat berdintasunezkoagoak, seguruagoak, irisgarriagoak eta inklusiboagoak diren hiri eta landa inguruneek osatu behar dute.

## SIGLAK

- **IAE** Ingurumen adierazpen estrategikoa
- **EAE** Euskal Autonomia Erkidegoa
- **AFA** Arabako Foru Aldundia
- **GEE** Genero eraginaren ebaluazioa
- **GIEE** Generoaren arabera sortuko den eraginari buruzko aurretiazko ebaluazio txostena
- **HAPO** Hiri antolamendurako plan orokorra
- **HPPH** Herritarrek parte hartzeko programa

## 2. XEDEA

Gida honen helburu nagusia Arabako Lurralde Historikoko udalerrietako hiri antolamendurako plan orokorretan genero ikuspegia txertatzeko erreferentzia esparru bat eskaintzea da.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak jasotzen du xedapen orokorren izaera juridikoa duten planek, bereziki lurraldekoek eta hirigintzakoek, generoaren arabera sortuko den eraginari buruzko aurretiazko ebaluazioa jaso eta berdintasuna sustatzeko neurriak sartu beharko dituztela. Hirigintza plangintzako tresnetan genero ikuspegia sartuz, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen duen hirigintza sortzen laguntzen da.

Ekitatea sustatuko duen eredu bat sortu nahi da, hiriko erabiltzaileen beharrianak aintzat hartuko dituen, hiri ingurunean dauden desberdintasunak murriztuz. Hiri plangintzan, genero ikuspegiaren funtsezko premisetako bat familia edo zaintza lanak ikusarazten eta erdigunean jartzen saiatzea da. Zeregin horiek, gehienbat, emakumeek egiten dituzte, eta, zeharka, plangintzatik kanpo egon ohi diren biztanle askori eragiten diete.

Hirigintzak, genero ikuspegitik, hiriak planifikatzeko modua birplanteatzen du, modu horrek genero desberdintasunak erreproduzitzen eta sortzen laguntzen baitu. Hiri plangintza ez da neutrala; planifikatzen den ikuspegiaren arabera, berdintasuna sustatuko du edo bazterketa prozesuak sortuko ditu. Kontua da, hiriaren erabilera eskubidean eta baliabideen bidezko aprobetxamenduan, desberdintasun horiek errepikatu beharrean, gizarteratzea sustatuko duen hiri espazioaren plangintza bat garatzea. Partaidetza prozesuen bidez, hitza emanez printzipio horiek aplikatu aurretik hiriak diseinatzerakoan kontuan hartzen ez ziren herritarren kolektibo edo sektore guztiei.

Gida hau hiri antolamendurako plan orokorraren idazketan printzipio horien aplikazio praktikoa errazteko idatzi da, generoko politikak emaitza egiazkoak eta ebaluagarriak dakartzan tresna argia eta arina bihurtuz, horrela hirigune gizatiarragoak sortzen lagunduz.



## 3. LEGE ETA ARAU ESPARRUA

Genero ikuspegia hirigintza plangintzan txertatzea funtsezko urratsa da hiri inklusiboagoak, bidezkoagoak eta seguruagoak eraikitzeko herritar guztientzat.

Testuinguru horretan, lege eta arau esparrua funtsezkoa da hiriguneetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrera bideratutako hirigintza politikak bideratzeko. Horren erakusgarri da araudiak eta legeriak azken hamarkadetan izan duten funtsezko bilakaera, bai estatuan, bai autonomia erkidegoan, eta horrek lagundu egin du genero ikuspegi hori hirien diseinuan txertatzen.

Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea onartu zirenetik, nabarmen aurreratu da genero ikuspegia hainbat arlotan aplikatzeko beharra aitor dadin, hiri plangintzan barne.

Abiapuntu horrekin, hiri espazioen diseinuan genero berdintasuna txertatzea ahalbidetzen duen arau esparru bat eraiki da pixkanaka. Autonomia erkidegoan, gizarte eta hirigintza errealitate zehatzenetara egokitutako berariazko araudien garapena nabarmendu behar da.

Hemen, indarrean dagoen araudiaren ikuspegi bat eskaintzen da, udalerriei beren hirigintza plangintzan genero ikuspegia modu eraginkorrean txertatzeko aukera ematen diena, bai estatu mailan genero berdintasunaren oinarriak ezarriz, bai autonomia eta toki mailan, testuinguru zehatza goetarako gidalerroak ezarriz, hirigintza pertsona guztientzako espazio bidezkoagoak, seguruagoak eta irisgarriagoak eraikitzeko tresna izatea bermatuz, haien generoa edozein dela ere.

### 3.1. BERDINTASUNARI ETA HIRIGINTZARI BURUZKO ESTATUKO ARAUDIA

#### 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrerakoa

- **19. artikulua. Genero-eraginaren txostenak.**

Izaera orokorreko xedapen-proiektuak eta berebiziko garrantzia duten plan ekonomiko, sozial, kultural eta artistikoak, Ministroen Kontseiluak onetsi behar dituzenean, txosten bat izan beharko dute generoan oinarritutako eraginari buruz.

- **31. artikulua. Hirigintza-politikak, lurralde-antolaketari eta etxebizitzari buruzkoak.**

- 1 Administrazio publikoetako politika eta planek, etxebizitza eskuratzeko gaian, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eragingarria izateko neurriak barneratuko dituzte. Edu berean, hirigintzako eta lurralde-antolaketako politikek kontuan hartuko dituzte gizarte-talde desberdinen eta familia-egitura desberdinen beharrezkoak, eta ahalbidetuko dute berdintasun-baldintzetan jotzea hirigintzako zerbitzu eta azpiegituretara.
- 2 Gobernuak, bere eskumenen esparruan, suspertuko du beharrezkoan edo baztertuak izateko arriskuan dauden emakumeek, eta genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeek etxebizitza eskuratzeko, bereziki, emakume horiek, kasu batean zein bestean, adingabeko seme-alabak dituztenean euren ardurapean bakarrik.
- 3 Administrazio publikoek, hiria diseinatzean, hirigintzako politiketan eta hirigintza-plangintza zehaztu nahiz betetzean, kontuan hartuko dute genero-ikuspegia; horretarako, bereziki, herritarren partaidetza eta gardentasuna suspertu eta ahalbidetzeko mekanismoak eta tresnak erabiliko dituzte.

### 3.2. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ARAUDIA

**1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.**

- **50. artikulua. Ingurumena, lurralde-antolamendua, hirigintza, etxebizitza, garraioa eta landa-eremua.**

**1** EAEko botere publikoek behar diren baliabideak jarriko dituzte berma dadin genero-ikuspegia txertatzen dela lurralde-antolamenduaren, hirigintzaren, garraioaren eta etxebizitzaren arloko politikak, arauak, planak eta programak taxutzean, betearaztean eta ebaluatzean; besteak beste, gai hauek hartuko dira kontuan:

- a) Emakumeen eta gizonen beharizan desberdinen ezagutza sustatzea mugikortasunari eta etxebizitza-, garraio- eta hirigintza-politikekin lotutako espazioak, azpiegiturak eta zerbitzuak erabiltzeari dagokionez, horretarako diagnostikoak, azterlanak eta sexuaren arabera bereizitako estatistika-datuak eta sektore horietako emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko adierazle espezifikoak eskuragarritasuna areagotuz eta hobetuz.
- b) Emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitza bermatzeko gune seguruak sustatzea.
- c) Jendartearen aldetik kohesionatuta dauden eremuak eta lurraldeak sustatzea, emakumeen eta gizonen bizi-kalitatea hobetzen laguntzeko eta zerbitzuak eta azpiegiturak berdintasun-baldintzetan eskuratzeko, bereziki kontuan hartuta **3.1 artikulua**ko azken atalean aipatutako faktoreak biltzen dituzten emakumeen egoera 1.
- d) Erraztea etxeko lanak eta pertsonak zaintzeko lanak egitea eta erantzunkidetasunez bateratzea bizitza pertsonala, familia eta lana, eta, oro har, kontuan hartzea ekoizpen- eta ugalketa-arloan sortutako beharrak, bizitzaren iraunkortasuna errazteko helburuz.

- e) Sektoreko profesionalen berdintasun-arloko prestakuntza sustatzea.
- f) Aipatutako politika eta programak diseinatzekoan eta gauzatzerakoan gardentasuna eta emakumeen ikusgaitasun eta parte-hartze handiagoa sustatzea, bereziki **3.1 artikulua**ren azken atalean aipatutako faktoreak biltzen dituzten emakumeena.

**3.1 artikulua:** "EAEko botere publikoek diskriminazio anizkoitzari aurre egingo diote, eta emakumeen edo emakume-taldeen oinarriko eskubideak benetan gauzatzen direla bermatuko dute, emakume horiek bereizkeria-egoerak sor ditzaketen beste inguruabar batzuk ere tartean direnean, hala nola arraza, kolorea, jatorri etnikoa edo soziala, hizkuntza, erlijioa, kultura, politikari edo bestelako gaien buruzko iritzia, gutxiengo nazional bateko kide izatea, ondarea, jaiotza, familia-eitea, desgaitasuna, adina, sexu-joera sexu-edo genero-identitatea, genero-adierazpena, landa-eremuko izatea, migratzailea, errefuxiatua, seropositiboa, guraso bakarra izatea edo beste edozein baldintza edo egoera pertsonal, sozial edo administratibo."

**2** Era berean, EAEko botere publikoek, ingurumenaren arloan dituzten eskumenen esparruan, neurri hauek hartuko dituzte, besteak beste:

- a) Ikerketa eta jakintza sustatuko dute, emakumeen eta gizonen errealitatea ezagutzeko baliabide naturalen kudeaketan, kontserbazioan zein erabileran eta paisaiaren antolamenduan zein babesean, eta, ingurumena kudeatzeko politikei dagokienez, sexuaren arabera bereizitako informazio estatistikoa eta emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotutako adierazleak areagotu eta hobetuko dituzte.
- b) Genero-ikuspegia txertatuko dute ingurumen-hezkuntzan.

- c) Ingurumenarekin lotuta sortzen ari diren sektoreetan emakumeen enplegua eta kalitateko autoenplegua sustatuko dituzte.
  - d) Genero-ikuspegia txertatuko dute klima-aldaketa arintzeko eta horretara egokitzeko estrategiak ikertzean, aztertzean, taxutzean eta abian jartzean, bai eta erabaki politikoak eta teknikoak hartzean ere, eta fenomeno horren inpaktuak ikusaraziko dituzte.
  - e) Sektoreko profesionalen artean berdintasunaren arloko prestakuntza sustatuko dute.
  - f) Aipatutako politikak eta programak diseinatzean eta gauzatzean gardentasuna eta emakumeen ikusgaitasun eta partaidetza handiagoa sustatuko dute, bereziki 3.1 artikulua azken atalean aipatutako faktoreak biltzen dituzten emakumeena.
- 3** EAEko administrazio publikoek, beren eskumen-eremuan, behar diren baldintzak sustatuko dituzte landa-ingurunean emakumeen eta gizonen benetako berdintasun eraginkorra bermatzeko, eta emakume horiek dituzten oztopo gehigarriak kenduko dituzte, besteak beste, partaidetzarekin, baliabideak eskuratzearekin eta esleitutako estereotipo eta rolekin lotutako oztopoak.
- 4** EAEko administrazio publikoek, beren eskumenean esparruan, sustatu egingo dute arrantza- eta nekazaritza-arloan diharduten emakumeek elikagai-burujabetzan eta biziari eta planetari eusten egiten duten ekarpenaren aitortza. Halaber, neurriak hartuko dituzte emakume horiek duten benetako berdintasun eraginkorrerako eskubidea bermatzeko eta izaten dituzten oztopo gehigarriak kentzeko, zeinak lotuta baitaude, besteak beste, partaidetzarekin, baliabideak eskuratzearekin eta esleitutako estereotipo eta rolekin.

**EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak, uztailaren 30eko 128/2016 Dekretuaren bidez onetsiak.**

- **30. artikulua.- Genero-ikuspegiaren arloko gidalerroak.**
- 1** Lurraldearen izaera polizentrikoa sustatzea, non hiri ertainen protagonismoa berreskuratzea funtsezkotzat jotzen den zerbitzuak biltzeko eta emateko zentroak diren heinean.
  - 2** Lurraldea planifikatzean, erabilera guztiak, eta bereziki eguneroko bizitzarako beharrezkoak direnak, hurbil kokatzea, joan-etorriak ibilgailuz egin beharra murrizteko edo denborak ahal den neurrian laburtzeko moduan.
  - 3** Hurbiltasuneko hiri konplexua sustatzea, ongi hornitutako auzo seguruetan oinarritua, hiriko eta lurraldeko beste eremu batzuekin garraio publiko bidez ongi konektatuak.
  - 4** Gune publiko bizi eta seguruak indartzea, haien gizarte-eginkizuna mantendu eta sustatzeko eta herritarrei haiek erabiltzeko aukera emateko.
  - 5** Gune publikoak planifikatu eta diseinatzean, emakumeen, adinekoen (bi sexuen premia diferentzialesi arreta eskainiz) eta haurren premiak kontuan hartzea.
  - 6** Dentsitate nahikoa duen hiri-eredu bat sustatzea, erabilerak behar bezala nahastea eta eguneroko bizitzarako behar diren ekipamenduetara oinez iristea ahalbidetuko duena, baita garraio publikoaren eraginkortasuna ere, ibilgailu pribatu bidezko mugikortasunaren mendetasuna murrizteko moduan.
  - 7** Garraioaren plangintzan eta kudeaketan genero-ikuspegia sartzea, jardura horietan emakumeen mugikortasun-jarraibideak, bidaiatzeko modua eta joan-etorrien denbora- eta ordu-murrizketak kontuan hartzeko moduan, eta emakumeen irisgarritasun-premiak eta segurtasuna kontuan hartzeko moduan.

- 8 Zaintzaren mugikortasuna sustatzea, beste pertsona batzuk zaintzarekin eta etxea mantentzearekin lotutako bidaiak ahalik eta denbora gutxienean, eskatutako ordu-tarteetan eta arrazoizko kostu batekin egiteko aukera ziurtatuz, eta pertsoneri ordainpeko enplegua zaintza-erantzukizunekin bateragarri egiteko bidea emanaz.
- 9 Espazio publikoan segurtasuna bermatzea; horretarako, plangintza-prozesuan, parte-hartze prozesuen barruan, talde sozial batzuek eta besteek arriskutsu edo ez seguru gisa ikusten dituzten guneak identifikatuko dira.
- 10 Herritarrek parte hartzeko prozesuak garatzea genero-ikuspegia aintzat hartuz emakumeen parte-hartzea indartzeko.

## Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako Euskadiren 2030 Estrategia

### III. ARDATZA: GIZARTE ETA LURRALDE KOHESIOA

**III-9.14 HELBURU ESTRATEGIKOA.** Etxebizitza, espazio eta lurralde irisgarriak, inklusiboak, jasangarriak, seguruak eta indarkeria matxistarik gabekoak sustatzea, sozialki integratzaileak, zaintzak errazten dituztenak eta zerbitzu, baliabide eta azpiegiturretara berdintasun-baldintzetan iristen lagunduko dutenak.



## 4. GENERO IKUSPEGIA DUEN HIRIGINTZA

Genero ikuspegia duen hirigintza gidatzen duten printzipioen helburua hiri gune segurua, irisgarria eta biztanle guztien adierazgarria izatea da. Plangintzan printzipio eta esku hartzeko eremu horiek ezartzeak aukera ematen die udalerriei hiri ingurune inklusiboagoak eta bidezkoagoak diseinatzeko.

Genero ikuspegiak hirien eta herrien diseinua aberasteaz gain, bizikidetza bidezkoagoa eta jasangarriagoa ere sustatzen du, non pertsona guztiak erabat garatu ahal izango diren eta bizi diren espazioan seguru sentitu ahal izango diren.

### 4.1. GENERO IKUSPEGIA DUEN HIRIGINTZAREN AREAK

Genero ikuspegia duen hirigintzaren funtsezko printzipioek honako area hauek hartzen dituzte:

- **Irisgarritasun unibertsala:** Hiri diseinuak pertsona guztiei irisgarritasun egokia ematea da helburua, batez ere mugitzeko zailtasunak dituztenei. Emakumeak dira zainketa lanak egiten jarraitzen dutenak, eta haurrak, kotxetxoak, erosketa orgak, poltsa eta abar eramanda ibiltzen dira egunero herriguneetan; horrek zaildu egiten du joan-etorria irisgarritasun baldintzetan egitea.

Ohikoagoa da, halaber, emakumeak oinez mugitzeko zailtasunak dituzten adineko pertsonak zaintzea eta laguntzea. Oztopoak kendu behar dira, makilak, taka-takak eta gurpil aulkiak errazago erabiltzeko.

Era berean, dibertsitate funtzionala duten pertsonak ingurune irisgarria behar dute hiriko bizitzaren alderdi desberdinetan beren autonomia garatu, integratu eta erlazionatu ahal izateko.

- **Mugikortasun inklusiboa:** Herrietako mugikortasunak pertsona guztiak integratu behar ditu, inor kanpoan utzi gabe diseinuaren ondoriozko arrazoiengatik. Udalerrien barruko mugikortasuna oinez, bizikletaz eta garraio publiko edo pribatuan egiten da.

Hirigintzari aplikatutako genero ikuspegitik, garraio publikoko mugikortasunak erraztu egin behar du pertsona guztiek zerbitzu eta ekipamendu guztiak eskuratu ahal izatea, eta urrunen dauden zonek garraio zirkuitutik kanpo dauden zonak sor ez ditzaten saiatu behar da.

Joan-etorriak erraztuko dituen garraio sistema batek familia bizitza eta lan bizitza uztartzea erraztuko du. Garrantzitsua da, halaber, oinezko mugikortasuna sustatzea, oinezkoentzako guneak sortuz, irisgarriak eta mantenduak, bai eta bidegorriak ere, haietatik segurtasunez ibiltzeko.

- **Segurtasuna espazio publikoan:** Printzipio hori emakumeek eta kolektibo kalteberek udalerriko leku jakin batzuetan duten segurtasun maila eta segurtasun ikuspegia ezagutzean datza.
- **Ekitatea ekipamendu eta zerbitzuen eskuragarritasunean:** Nabarmentzekoa da garrantzitsua dela osasun, irakaskuntza, kultura, kirol eta gizarte ekipamendu guztiak pertsona guztientzat eskuragarriak izatea, mugikortasun mota desberdinak dituztenentzat barne.

Halaber, ekitatea egon behar da baliabideak erabiltzean eta aplikatzean, bai eta gizonentzat zein emakumeentzat eskuragarriak eta interesgarriak diren udal zerbitzu eta ekipamenduen eskaintzan ere.

Azkenik, garrantzitsua da herriguneetan saltoki txikien sare bat sortzea, eguneroko lanak oinez egin ahal izateko, denboraren erabilera hobetzeko eta familia eta lana bateragarri egiteko. Interesgarria da, halaber, lankidetzaren sareak handitzea, auzo babeseke harremanak erraztuz.

- **Emakumea gune publikoan ordezkaturia eta ikusgai egotea:** Herri eta hirietan ikusezin geratu dira emakumeek gizarteari egindako lorpenak eta ekarpenak; hiri ingurunea ez da neutrala eta, beraz, desberdintasunak betikotzea ekar dezake.

Genero ikuspegitik, kaleek, parkeek, plazek edo hiri ekipamenduek udalerrientzat garrantzitsuak diren emakumeen izena jasotzea sustatzen da, hiri ingurunean emakumearen zeregina modu bidezkoagoan ikusaraziz. Horrela, emakumezko erreferenteak ordezkaturia egotea bultzatzen da, etorkizuneko belaunaldientzako eredu gisa.

#### 4.2. ESKU HARTZEKO FUNTSEZKO EREMUAK GENERO IKUSPEGIA DUEN HIRIGINTZA PLANGINTZAN

Genero berdintasuna sustatzen duen hirigintza garatzeko, plangintzaren funtsezko hainbat eremutan esku hartu behar da. Besteak beste:

- A. Udalerraren ereduak.** Udalerraren ereduak garapen irizpideei jarraitu behar die genero ikuspegitik, norberaren, lanaren eta familiaren kontziliazioa bermatuz. Lehentasuna eman behar zaie bizitegi zonen, ekipamenduen eta jardueraren ekonomikoetarako zonen hurbiltasuna bermatzen duten eredu trinkoei. Horietan, udalerriko espazio libreak eta natura balioak sustatu behar dira, ingurune irisgarriagoa, seguruagoa eta jasagarriagoa sortuz.
- B. Bizitegi eskaintzaren egokitasuna.** Bizitegi eskaintzak honako alderdi hauek hartu behar ditu kontuan: garapen sakabanaturia egotea, bizitegien trinkotasuna, herriguneari lotu gabeko bizitegi handitzeak, familia eredu berrietara egokitzen diren bizitegi tipologiaren nahasketa, etab.

- C. Arau zehaztapenak.** Udalerriko etxebizitzak dauden familia egituretara egokitzen diren ala ez deskribatzea. Udalerrian eraikinak dituen erabilerekin jardueraren ekonomikoak eta bizitegi erabilerekin biltzea edo sakabanatzea erraztu dezakete. Funtsezkoa da hiri sarea heterogeneoa dela bermatzen saiatzea, eguneroko lana egiteko behar diren produktuen eskuragarritasuna errazteko. Era berean, erabiltzen ez diren eraikinak edo guneak hautemateak segurtasunik gabeko puntuak ezabatzen eta aukera guneak sortzen lagun dezake.
- D. Irisgarritasuna eta segurtasun pertzepzioa.** Zona ez seguruak edo arriskutsuak hautematea eta deskribatzea, bai eta irisgarritasun arazoak dituzten guneak ere, nahitaez plangintzaren mende ez dauden jarduketan bidez hobetu ahal izateko.
- E. Udal ekipamenduen eta zerbitzuen.** Ekipamendu eta zerbitzuen eskuragarritasunak berdintasunezkoa izan behar du, eta pertsona guztien beharrei erantzun behar die. Ekipamenduek, hala nola osasun zentroek, hezkuntza zentroek edo jolasguneek, kokapen estrategikoa izatea funtsezkoa da. Jardueraren inklusiboak eta komunitate osoarentzat irisgarriak sustatzen dituzten kolektiboentzako jarduerak hartzeko erabilera anitzeko eraikinak egoteak ere komunitate osoaren bizitza erraztu dezake.
- F. Gune publikoak eta zerbitzuetarako azpiegiturak.** Gune publikoak funtsezkoak dira gizarte kohesiorako eta pertsonen elkarrekinerako. Kokapenaz gain, diseinuak topagune eroso eta seguruak sortzen lagundu behar du, adin guztietako pertsonak sartzeko guneak, haurrentzako jolasguneak eta adinekoentzako zonak edo jardueraren guneak izango dituztenak.
- G. Mugikortasuna.** Udalerriko leku nagusiak lotuko dituen oinezkoentzako edo bizikletentzako sare seguru eta irisgarri bat planifikatzea. Gainera, funtsezkoa da garraio kolektiboko geralekuen kokapena eta irisgarritasuna planifikatzea. Geraleku horiek, udalerraren gehienetan, eskualdekoak dira.

**H. Genero ikuspegia aplikatzearen garrantzia ikusaraztea eta hari buruzko gizarte kontzientziazioa sustatzea.** Emakumea hiri espazioan ikusarazteak emakumearen ekarpenen aintzatespen historiko eta soziala sustatzen du. Hori lortzeko, hainbat neurri har daitezke, hala nola kaleak, plazak eta beste gune edo elementu esanguratsu batzuk izendatzea, herritar guztiek udalerriko historian edo kulturari rol garrantzitsua izan duten emakumeak aintzat har ditzaten. Elementu sinbolikoak ere jar daitezke, hala nola plakak edo monumentuak, genero berdintasuna eta emakumeek gizartean egiten duten ekarpena aitortzeko. Azken batean, egunerokotasunean bizi garen guneetatik heztea da helburua.

## 5. ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN BEREZITASUNAK

Arabako Lurralde Historikoak ezaugarri bereziak ditu, eta ezaugarri horiek eragin zuzena dute genero ikuspegia hirigintza plangintzan txertatzean. 51 udalerrietatik gehienak txikiak dira, eta Gasteiz, Laudio eta Amurriok baino ez dituzte 5.000 biztanle baino gehiago.

Gainera, lurralde aniztasuna eta biztanleriaren banaketa dira ezaugarri erabakigarrienetako bat; udalerrri batzuek herrigune bakar batean biltzen dituzte biztanle gehienak eta beste batzuek herrigune anitzeko egitura dute. Desberdintasun horrek horietako bakoitzaren lehentasun eta behar orokorrak baldintzatzen ditu; izan ere, herrigune bakarreko hiri ereduak mugikortasun jasagarria, gune publikoetarako irisgarritasuna eta emakumeen ikusgaitasun sinbolikoa hobetzea eskatu ohi dute, baina kontzeju egitura duten udalerriek, berriz, lotura handiagoa dute konektibitatearekin, funtsezko zerbitzuetarako irisgarritasunarekin eta lurralde bakartzearen aurkako borrokarekin.

Beraz, mugikortasuna edo konektibitatea udalerrri motak baldintzatzen ditu, eta beharrak argi eta garbi desberdinak dira. Populazio handieneko herriguneek hobekuntzak behar izaten dituzte oinezkoen ibilbideen segurtasunean, argiztapena gune publikoetan eta bidegorrien hobekuntzak. Herrigune txikiagoetan, berriz, eskaera nagusia herrigune nagusiarekin eta zerbitzuak eta ekipamenduak eskuragarri jartzen dituen eskualde buruko herrigunearekin loturak hobetzea da, eta horrek esan nahi du garraio publikoa eta, kasu batzuetan, tokiko eta eskualdeko bide azpiegiturak hobetu eta ezarri behar direla. Horrek, eguneroko mugikortasuna errazteaz gain, genero desberdintasunak murrizten ere laguntzen du; izan ere, emakumeak gehiago egon ohi dira joan-etorrietarako garraio publikoko zerbitzuen mende.

Biztanleriaren zahartzea, landaguneetan nabarmenagoa dena, beste faktore garrantzitsu bat da Araban. Egoera horrek areagotu egiten du udalerriei gune publiko irisgarriagoak eta hobeto egokituak emateko beharra, bai eta adinekoen berariazko beharretara egokituko diren zerbitzuez hornitzeko beharra ere, kasu askotan oinezkoentzako loturen eta garraio publikoaren mende baitaude.

Oro har, herrigune bakarreko udalerrietako herriguneek eta herrigune anitzeko udalerrietako herrigune nagusiek espazio libreak eta populazioaren tamainaren arabera ekipamendu nahikoak dituzte, eta ohikoa da mota bereko ekipamendu bat eta, gehienez ere, bi aurkitzea. Herrigune txikiak, ordea, ez dituzte ekipamendu guztiak, eta nahiko ohikoa da, erlijio ekipamenduaz gain, administrazio batzarraren egoitza ere egotea; izan ere, kasu askotan, administrazio erabilerak, erabilera soziokulturalak eta hezkuntza erabilerak hartzen ditu, eta kirol jardueraren bat ere hartzen du kasu batzuetan.

Bestalde, lurraldeko natura eta kultura ondareak beste dimentsio bat gehitzen dio hirigintza plangintzari. Hiri eta landa guneak eta naturagune babestuak aldi berean egoteak oreka eskatzen du hirigintza garapenaren eta ingurumen kontserbazioaren artean. Ildo horretan, ondare guneetarako irisgarritasun unibertsalak lehentasunezkoa izan behar du, eta herritar guztiei ingurune horietaz gozatzeko aukera emango dien diseinu inklusiboa sustatu behar da.

Era berean, emakumeek gune publikoan duten ordezkartza sinbolikoa, hala nola kaleak, plazak eta eraikinak emakume garrantzitsuen omenez izendatzea, aukera eremu bat da desberdintasun historikoei aurre egiteko eta hirigintza bidezkoago baterantz aurrera egiteko.


Azkenik, herritarren parte hartzea funtsezko oinarria da lurralde historikoko hirigintza plangintzan genero ikuspegia txertatzen dela bermatzeko. Parte hartzeko prozesuek aukera ematen dute generoaren arabera bereizitako beharizanak identifikatzeko eta udalerrri bakoitzaren ezaugarri berezietara egokitutako neurriak eta irtenbideak proposatzeko. Ildo horretan, funtsezkoa da emakumeen eta kolektibo kalteberen parte hartzea HAPOaren idazketaren fase guztietan.

Laburbilduz, Arabako Lurralde Historikoaren berezitasunek hirigintza ikuspegi moldakorra eskatzen dute, lurralde aniztasuna eta erronka sozial eta demografikoak aintzat hartuko dituen. Plangintzan genero ikuspegia sartzeak, berezitasun horiei erantzuteaz gain, garapen bidezkoagoa, inklusiboagoa eta jasangarriagoa bermatzen du, pertsona guztiek ingurune irisgarri eta seguruz gozatzeko aukera izan dezaten.

## 6. GENERO IKUSPEGIA PLANGINTZAREN IZAPIDETZEAN TXERTATZEA

Hirigintza plangintzaren idazketan genero ikuspegia txertatzeko, plangintza egituratua eta xehatua egin behar da hainbat fasetan; horri esker, diagnostiko inklusibo batetik hasi eta berariazko neurriak ezarri eta ebaluatu ahal izango dira. Fase horietako bakoitzak bermatu nahi du genero ikuspegia modu integratuan aintzat hartuko dela plangintza etapa guztietan, eta, horrela, hiri ingurune bidezkoagoa, irisgarriagoa eta segurua sustatuko dela.

Gai horiek sakon aztertu aurretik, komeni da HAPO bat idazteko eta izapidetzeko prozesua zein den laburbiltzea; izan ere, genero ikuspegia txertatzea, gida honetan planteatzen den bezala, prozesu horren eta haren faseen arabera izango da erabat.



Aurreko irudia Arabako Foru Aldundiko Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuak egiten du, eta bertan ikusten da HAPOa bost faseetan egituratzen dela: lehena, udalerrriaren egungo egoerari buruzko informazioa eta analisisia; bigarrena, lortu nahi den udalerrriaren ereduari buruzko lehen erabakiak hartzen dituen aurrerapenaren dokumentua, funtsean egiturazko antolamenduaren alderdiak jorratzen dituen (udalerrri osoarentzat interesgarriak diren alderdi orokorrak); hirugarrena, HAPOaren dokumentu osoaren hasierako onespina. HAPOan etorkizuneko hiri plangintza eta udal lurraldearen antolamendua arautu behar dituen hirigintza esparrua ezartzen da, eta udalerrri osoaren jardura eta erabilerak behar bezala funtzionatzeko beharrezkoak diren egiturazko antolamenduko eta antolamendu zehatuko zehaztapenak (zehatuak) jasotzen dira.

Fase hori gaindituta, hasiera batean onetsitako dokumentua doitzeko prozedura hasten da; lehenik eta behin, herritarren alegazioetara eta eskumenak dituzten administrazio eta erakunde sektorialetatik jasotako txostenetara, eta, azkenik, Eusko Jaurlaritzaren eta Arabako Foru Aldundiaren txostenetara. Azken horrek onetsiko du behin betiko, 7.000 biztanletik beherako udalerrrien kasuan.

Egitura horretatik ondorioztatzen da lehenengo hiru faseak gehiago dagozkiola dokumentuaren prestaketari; prestaketa horretan, Udalak, idazketa taldearekin eta herritarrekin batera, erabakiak hartzeko prozesu konplexu eta jarraitua egiten du, Plan Orokorraren dokumentu oso bat lortu arte. Azken fase biek, berriz, haren hirigintza legezkotasuna doitu eta egiaztatzeko aukera ematen dute, indarrean jarri aurretik.

HAPOaren izapidetzea eta hirigintza plangintzaren idazketa faseetan genero ikuspegia txertatzea gaitzeko, 1. TAULA sartu da.

## 1. TAULA. GENERO IKUSPEGIA HAPO-A IZAPIDETZEKO FASEETAN TXERTATZEA

HAPOaren fasea	HAPOaren lanak	Genero ikuspegia txertatzeko helburua	Genero ikuspegia txertatzeko funtsezko jarduerak	Lotutako dokumentazioa
1. FASEA Aurreko jarduketak	Lanen hasiera: kartografia eta aurreko dokumentuak Aurretiko azterketak eta hitzarmenak Idazketa taldearen enkargua Herritarrek parte hartzeko programa (HPP) lantzea	Hirigintza arazoak ikuspegi inklusibo eta parte hartzailearekin diagnostikatzea	1.A HAPOari buruzko lehen informazio saioa eta herritarren inkesta, generoaren ikuspegitik  Hasierako ekarpenak jasotzea eta genero ikuspegiari buruz sentsibilizatzea  1.B Inkesten balorazio txostena  Erantzunak aztertzea, generoaren arabera bereizitako oztupoak eta beharrianak identifikatzeko	HAPOari buruzko herritarren inkesta, genero ikuspegitik  Inkesten balorazio txostena
2. FASEA Aurrerapena	HAPOaren aurrerapena idaztea Aurrerapenaren jendaurreko aldia Lizentzien hautazko etendura Beste administrazio batzuen txostenak eskatzea Aukera eta iradokizunen balioespina	Irizpide orokorrak ezartzea eta berariazko diagnostikatzea genero ikuspegitik	2.A Generoaren arabera sortuko den eraginari buruzko aurretiazko ebaluazio txostena  Hiri diseinuak emakumeei eta gizonei modu bereizgarrian nola eragiten dien aztertzea  2.B Dokumentazio grafikoa GEN1. Diagnostikoa. Mugikortasuna GEN2. Diagnostikoa. Irisgarritasuna eta segurtasuna GEN3. Diagnostikoa. Hiri diseinua GEN4. Diagnostikoa. Eragin areak  2.C Irizpide eta helburu orokorrak  Bidezko hiri ingurune baterako printzipioak definitzea	Generoaren arabera sortuko den eraginari buruzko aurretiazko ebaluazio (GIEE) txostena  Planoak GEN1-GEN4
3. FASEA Hasierako onespina	HAPOaren dokumentua idaztea Udalbatzaren hasierako onespina Dokumentuaren jendaurreko aldia Txostenak eta ingurumen adierazpen estrategikoa (IAE) eskatzea	HAPOan berdintasun neurriak sartzea eta ekintza osagarriak zehaztea	3. A Bigarren informazio saioa Hartutako neurriak aurkeztea 3.B HAPOan hartutako neurriak Desberdintasunak ezabatzeko ekintzak zehaztea 3.C Dokumentazio grafikoa gehigarria GEN5. Hartutako neurriak 3.D Hartutako neurrien taula Ekintza integratuak laburbiltzea 3.E Hirigintzakoak ez diren gaiak identifikatzea  HAPOan konpondu ezin diren arazoei aurre egiteko ekintza plan bat proposatzea	Genero eraginaren ebaluazioa (GEE) (aurreko diagnostikoa + HAPOak hartutako neurriak)  Planoa GEN5  Hartutako neurrien taula

Hemen deskribatuko diren metodologiak eta faseek HAPOaren idazketaren lehen hiru faseak jorratzen dituzte. Izan ere, lehen adierazi denez, orduan dute izateko arrazoia herritarren parte hartzeak eta erabakiak hartzeak, eta, beraz, une egokia eta beharrezkoa da genero ikuspegia txertatzeko.

## FASE 1: AURREKO JARDUKETAK

Fase honetan, HAPOa egituratzen hasten da, genero ikuspegia berariaz eta xehe txertatuz. Etapa honetako jarduerak aukera ematen dute dauden arazoaren diagnostikoa zehazteko eta hiri plangintzarako berdintasun helburuak zehazteko.

Fase honetan hauek sartzen dira:

- **1.A** HAPOari buruzko lehen informazio saioa eta herritarren inkesta, generoaren ikuspegitik.
- **1.B** Inkesten balorazio txostena.

### **1.A. HAPOari buruzko lehen informazio saioa eta herritarren inkesta, generoaren ikuspegitik**

HAPOaren idazketaren aurreko fasean, herritar guztiei dei egingo zaie informazio saio baterako. Saio horretan, HAPOaren idazketa genero ikuspegitik zertan datzan eta herritarrek nola parte hartuko duten azalduko da, labur-labur eta argi. Saio horretan lehenengo iritziak, zalantzak eta ideiak jasoko dira. Deialdi hori sare sozialen, udaleko iragarki taularen eta udalerrian erabiltzen diren beste ohiko baliabide batzuen bidez zabalduko da. Gainera, Udalaren webgunean argitaratuko da, eta HAPOa aurkezteko informazio saioarekin bat etor daiteke.

- Herritar guztientzako informazio **saio ireki baterako** deialdia, HAPOa genero ikuspegitik idazteko prozesua aurkezteko. Saio horretan, argi eta erraz azalduko da zertan datzan genero ikuspegia hiri plangintzan txertatzea.
- Herritarren **inkesta bat** zabaltzea, udalerriko hainbat alderdiri buruz dituzten iritziak eta pertzepzioak biltzeko. Alderdi horien artean egongo dira, besteak beste, mugikortasuna, segurtasuna, irisgarritasuna eta udal ekipamenduak genero-ikuspegitik **(I. ERANSKINA HAPOari BURUZKO HERRITARREN INKESTA, GENEROAREN IKUSPEGITIK)**.
- Inkestaren emaitzak oinarri izango dira **generoaren arabera sortuko den eraginari buruzko aurretiako ebaluazio (GIEE)** txostenerako. Txosten horretan, biztanleriaren lehen beharrianak eta gomendioak jasoko dira.

### **1.B. Inkesten balorazio txostena**

Inkestak jaso ondoren, **inkesten balorazio txosten bat** egingo da, emaitzak aztertu eta ezagutarazteko.

Txostena osatu ahal izango da herritarren segurtasunerako zerbitzu publikoek eremu ez seguruei eta puntu gatazkatsuei buruz emandako datu objektiboekin.

Txosten hori hasierako ebaluazioa da, udalerrian emakumeei eta gizonei modu berezian eragiten dieten gaien ikuspegi argia izateko aukera ematen duena, eta ondorengo faseetan helburuak ezartzeko oinarria izango da.

## PROPOSATUTAKO EDUKIAREN ESKEMA

INKESTEN BALORAZIO TXOSTENA
<b>1. PARTE HARTZEAREN ESTATISTIKA: GENEROAREN ETA ADINAREN ARABERA.</b>
<b>2. INKESTEN ONDORIOEN LABURPENA, HONAKO GAI HAUEN ARABERA MULTZOKATUTA:</b>
<b>A. UDALERRIAREN EREDUA</b> Erabileren banaketa orokorra, lurraldearekiko lotura, hurbiltasuna eta abar ezagutzea.
<b>B. BIZITEGI ESKAINTZAREN EGOKITASUNA</b> Eskariari erantzuten dion eskaintza nahikoa dago, etab.
<b>C. ARAU ZEHAZTAPENAK</b> Udalerriko etxebizitzak dauden familia egituretara, lehendik dagoen eraikin motara eta tamainara, jarduera ekonomikoen eta bizitegi erabileren nahasketa erazten duten erabileretara eta abarretara egokitzen diren hautematea.
<b>D. IRISGARRITASUNA ETA SEGURTASUN PERTZEPZIOA</b> Udalerrian irisgarritasunari buruz dauden arazoak ezagutzea; alderdi hori oso garrantzitsua da hirigintza inklusiboaren barruan, eta hirien eta herrien eraketa berriari aurre egin beharreko erronka nagusietako bat da. Udalerriko segurtasun mailak ezagutzea, hau da, kikiilduta senti daitezkeen edo puntu jakin batzuk gaizki mantentzeagatik larderiazko egoerak gerta daitezkeen guneko edo zona ez seguruak ezagutzea.
<b>E. UDAL EKIPAMENDUAK ETA ZERBITZUAK</b> Udal ekipamendu eta zerbitzuei buruzko guztia ezagutzea, eta horien eskaintza nahikoa den ala ez jakitea.
<b>F. GUNE PUBLIKOAK ETA ZERBITZUETARAKO AZPIEGITURAK</b> Espazio libreak daudela eta zein egoeratan dauden jakitea. Baliagarriak diren eta auzo harremanak errazten dituzten. Herriguneeen barruan bizi kalitate hobea lortzen laguntzen duten.
<b>G. MUGIKORTASUNA</b> Udalerriko mugikortasunarekin, ohiko garraio- edo herritarrek oro har jasan ditzaketen garraio gabeziekin lotutako alderdiak ezagutzea.
<b>H. EMAKUMEAREN ORDEZKARITZA SINBOLIKOA</b> Udalerriko bizitzan garrantzitsuak izan diren emakumeak ezagutzea eta interesa kaleak, elementuak, eraikinak edo guneko publikoak haien izenekin izendatzeko.

## FASE 2: AURRERAPENA

Fase honetan, HAPOa egituratzen hasten da, genero ikuspegia berariaz eta xehe txertatuz. Etapa honetako jarduerak aukera ematen dute dauden arazoaren diagnostikoa zehazteko eta hiri plangintzarako berdintasun helburuak zehazteko.

Fase honetan hauek sartzen dira:

**2.A** Generoaren arabera sortuko den eraginari buruzko aurretiazko ebaluazio (GIEE) txostena

**2.B** Generoaren arabera sortuko den eraginari buruzko aurretiazko ebaluazio (GIEE) txostenari erantsi beharreko dokumentazio grafikoa, plano hauek osatua:

GEN1. DIAGNOSTIKOA. MUGIKORTASUNA

GEN2. DIAGNOSTIKOA. IRISGARRITASUNA ETA SEGURTASUNA

GEN3. DIAGNOSTIKOA. HIRI DISEINUA

GEN4. DIAGNOSTIKOA. ERAGIN AREAK

**2.C.** HAPOaren irizpideak eta helburuak hartzeko dokumentuan sartu beharreko irizpide eta helburu orokorrak.

### **2.A. Generoaren arabera sortuko den eraginari buruzko aurretiazko ebaluazio (GIEE) txostena**

Fase honetan, generoaren arabera sortuko den eraginari buruzko aurretiazko ebaluazio (GIEE) txostena egingo da, eta, bertan, aurretiazko parte hartze prozesuaren ondorioak eta hasierako inkesten balorazio txostena jasoko dira. Edukia koadro honetan adierazten da.

**GENEROAREN ARABERA SORTUKO DEN ERAGINARI BURUZKO  
AURRETIAZKO EBALUAZIO (GIEE) TXOSTENA**

**1. ERREFERENTZIAZKO ARAU ESPARRUA**

**2. HAPO-AREN DESKRIBAPEN OROKORRA**

- Proiektuaren izena
- Sustatzen duen saila/entitatea/erakundea
- Proiektuari lotutako bestelako arauak, planak, etab.

**3. HAPO-AREN HELBURU OROKORRAK**

3.1 Lurralde helburuak.

3.2 Hiri helburuak.

3.3 Beste helburu batzuk.

**4. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA SUSTATZEKO**

**HELBURU OROKORRAK** kontuan hartuta udalerraren egiturak, hiri sarearen ezaugarriek, gune publikoen konfigurazioak eta plangintzak ezarritako erabileren esleipenak berdintasuna errazten edo zailtzen duten.

**5. HAPO-AREN EDUKIAREN LABURPENA**

**6. EMAKUMEEN ETA GIZONEN EHUNEKOEN ESTADISTIKAK HAPO-ARI  
LOTUTAKO EREMUETARAKO ETA EHUNEKOEN EBALUAZIOA**

6.1 Udalerriko, probintziako biztanle kopurua.

6.2 Biztanleriaren banaketa generoaren eta adinaren arabera.

6.3 HAPOaren idazketa taldeko kideak.

6.4 Udalbatzako kideak.

6.5 Herritarrek HAPOaren parte hartze saioetan parte hartzea, genero ikuspegitik.

**7. PO-AREN AZTERKETA, DIAGNOSTIKOA ETA HELBURUAK, GENERO  
IKUSPEGITIK.**

Apartatu hau garatzeko, beharrezkoa da 2.B. apartatuan azaltzen den dokumentazio grafikoa alde aurretik lantzea. Generoaren arabera sortuko den eraginari buruzko aurretiazko ebaluazio (GIEE) txostenari erantsi beharreko dokumentazio grafikoa. Txosten hori aztertzea eta diagnostikatzea izango da helburuak formulatzeko oinarria.

GEN1, GEN2 eta GEN3 planoetan, puntu gatazkatsuen adierazten dira ikur batekin eta identifikazio kode batekin (A.1.x, S.1.x, S.2.x, etab.). Horrek aukera ematen du horiek aurkitzeko eta helburuaren azalpenean aipatzeko, hala dagokionean; GEN4 planoan, udalerriko ekipamendu eta zerbitzuen eragin areak irudikatzen dira.

Honako funtsezko eremu hauen analisia, diagnostikoa eta helburuak jasoko ditu:

**A. UDALERRIAREN EREDUA.** Hirigintza garapena planifikatzeko ereduak deskribatzea eta aztertzea, eta diagnostikoa egitea, familia kontziliazioaren eta udalerriko espazio libreekiko eta natura balioekiko errespetuaren ikuspegitik. **HELBURUAK: A1, A2, ETAB.**

**B. BIZITEGI ESKAINTZAREN EGOKITASUNA.** Egungo bizitegi eskaintzaren analisia eta diagnostikoa, indarrean dagoen plangintzaren eta horrek genero ebaluazioan duen eraginaren arabera: garapen sakabanatuak, bizitegien trinkotasuna, herriguneari lotu gabeko bizitegi handitzeak... **HELBURUAK: B1, B2, ETAB.**

**C. ARAU ZEHAZTAPENAK.** Udalerrian dauden familia egituretara, lehendik dagoen eraikin mota eta tamainara eta abarretara egokitu behar diren analisia eta diagnostikoa. Merkataritza, egoitza eta zerbitzu jardueren banaketa orekatuaren analisia eta diagnostikoa, eginkizun bakarreko eremuak murriztuz eta guneen erabilera askotarikoa bultzatuz. **HELBURUAK: C1, C2, ETAB.**

**D. IRISGARRITASUNA ETA SEGURTASUN PERTZEPZIOA.** Eremu ez seguruak eta arriskutsuak hautematea eta deskribatzea. Egoeraren analisia eta diagnostikoa. **HELBURUAK: D1, D2, ETAB.** Helburu bakoitzak lotuta dauden eta hauteman diren puntu gatazkatsuen deskribapena jasoko du: A.1.x, S.1.x, S.2.x, etab.

**E. UDAL EKIPAMENDUAK ETA ZERBITZUAK.** Ekipamenduen azterketa eta deskribapena, udalerriko banaketa, kokapena eta haietarainoko joan-etorriak. Erabilera anitzeko eraikinak dauden, emakume eta gizonentzako, adineko pertsonentzako eta gazteentzako jarduerak hartzeko. Analisia eta diagnostikoa. **HELBURUAK: E1, E2, ETAB.** Helburu bakoitzak lotuta dauden eta hauteman diren puntu gatazkatsuen deskribapena jasoko du: U.1.x, S.1.x, S.2.x, etab.

**F. GUNE PUBLIKOAK ETA ZERBITZUETARAKO AZPIEGITURAK.** Espazio libreen deskribapena, diseinua, kokapena, egonlekuak, haurrentzako jolasak, itzalpeko eremuak. Espazio libreak pertsona guztiek gozatzeko egokiak diren. Analisia eta diagnostikoa. **HELBURUAK: F1, F2, ETAB.** Helburu bakoitzak lotuta dauden eta hauteman diren puntu gatazkatsuen deskribapena jasoko du: U.1.x, U.2.x, U.7.x, etab.

**G. MUGIKORTASUNA.** Oinez, bizikletaz, norberaren ibilgailuarekin edo garraio publikoarekin egiten diren ibilbideen deskribapena. Oinezkoentzako ibilbide seguruak eta konektatuak planifikatzea, biztanle talde guztientzako irisgarritasuna sustatuz. Analisia eta diagnostikoa. **HELBURUAK: G1, G2, ETAB.** Helburu bakoitzak lotuta dauden eta hauteman diren puntu gatazkatsuen deskribapena jasoko du: M.1.x, M.2.x, M.7.x, etab.

**H. GENERO IKUSPEGIA APLIKATZEAREN GARRANTZIA IKUSARAZTEA ETA SUSTATZEA.** Udalerrian emakumeak nabarmentzen dituzten kale, gune publiko, eraikin edo elementu esanguratsuen izendapenen deskribapena. Analisia eta diagnostikoa. **HELBURUAK: H1, H2, ETAB.**

## 2.B. Generoaren arabera sortuko den eraginari buruzko aurretiazko ebaluazio (GIEE) txostenari erantsi beharreko dokumentazio grafikoa

- Diagnostikoko planoak eta mapak garatzea, irisgarritasunari, mugikortasunari edo segurtasunari dagokionez emakumeei eta gizonei modu berezian eragiten dieten udalerriko puntu gatazkatsuak identifikatuz.
- Planoetan jasoko dira arriskua duten puntuen kokapena, irisgarritasun zaileko edo ikuspen gutxiko zonak, bai eta zerbitzuen eta ekipamenduen eragin gunek ere.
- Gehien agertzen diren puntu gatazkatsuen sinbologia sartzen da; berezko sinbologiarik ez duten puntu gatazkatsuak hautematen direnean, ikur orokorrean sartu ahal izango dira, zenbaki korrelatiboekin.



## GEN1 PLANOA DIAGNOSTIKOA. MUGIKORTASUNA

Plano honetan ekipamenduen kokapena, espazio libreak, komunikazioak eta garraio publikoa sartzen dira eta udalerraren mugikortasuna aztertzen da.

### PUNTU GATAZKATSUAK


Mugikortasunari dagozkion puntu gatazkatsuak identifikatzen dira. Horietako asko joan-etorrien segurtasunari lotuta daude, eta irisgarritasunarekin eta ibilgailuen eta oinezkoen joan-etorrien arteko elkarguneari. Beraz, ibilgailuan doazenei nahiz oinez edo bizikletaz dabiltzanei eragiten die.

Puntu gatazkatsu mota bakoitza ikur batekin eta identifikazio kode batekin identifikatzen da (A.1.x, S.1.x, S.2.x, etab.), eta, horri esker, puntu horiek lokalizatu eta aipa daiteke helburuaren deskribapenean, hala badagokio. (Adib.: Zebrabide arriskutsu bat dagoela adierazteko, dagokion ikurra erabiliko da, M.2.1 kodearekin batera -karatulan adierazten den bezala-, eta bat baino gehiago badaude, korrelatiboki zerrendatuko dira (M.2.2, M.2.3, etab.).

Planoak sarrien diagnostikatzen diren puntu gatazkatsuen zerrenda eta identifikazioa jasotzen ditu. Hala ere, gerta daiteke hain ohikoak ez diren beste batzuk identifikatzea; kasu horietarako, ikur orokor bat dago. Plano hori garatzean, mugikortasunari buruzko alderdi hauek aztertu ahal izango dira:

- Zebrabidearen edo oinezkoen pasabidearen beharra.
- Zebrabide edo oinezkoen pasabide arriskutsuak.
- Trafikoaren ikuspen txarra edo seinaleztapen txarra duten zonak egotea.
- Istripuak pilatzen diren zona egotea.
- Bizitegi gunearekin gaizki lotutako ekipamenduak.
- Bidegorririk ez izatea (udalerraren tamainagatik beharrezkotzat jotzen bada). 3.000 biztanletik beherako udalerrietan, ez da oso ohikoa herriguneari bidegorriak aurkitzea; hala ere, baliteke udalerrri zabal eta luzeetan beharrezko gabezia gisa identifikatzea.
- Bizikletentzako aparkalekurik ez izatea (udalerraren tamainagatik beharrezkotzat jotzen bada).
- Semaforoaren beharra.
- Egokitu gabeko semaforoa egotea.
- Garraio publikoko geralekurik ez egotea edo gaizki kokaturik egotea eta eguraldi txarraren aurrean babesik ez izatea.
- Ondo kokatutako eta edukiera nahikoko aparkaleku gunerik ez izatea.
- Seinaleztapen sexista eta esklusiboa.
- Garraio sarean tunelak eta gaineko pasabideak egotea.
- Beste batzuk.

## GEN1 PLANOAREN KARATULA PROPOSAMENA



**GEN2 PLANOA  
DIAGNOSTIKOA. IRISGARRITASUNA ETA SEGURTASUNA**

Plano honetan ekipamenduen, espazio libreen eta komunikazioen kokapena sartzen da, eta elkarrekin aztertzen dira udalerraren irisgarritasuna eta segurtasuna, oso lotuta baitaude elkarri.

**PUNTU GATAZKATSUAK**

Irisgarritasunarekin eta segurtasunarekin zerikusia duten eta sarrien identifikatzen diren puntu gatazkatsuak identifikatzen dira. Hala ere, gerta daiteke hain ohikoak ez diren beste batzuk hautematea; kasu horietarako, ikur orokor bat dago.

Puntu gatazkatsu mota bakoitza ikur batekin eta identifikazio kode batekin identifikatzen da (S.1.x, A.1.x, S.2.x, etab.), eta, horri esker, puntu horiek lokalizatu eta aipa daiteke helburuaren deskribapenean, hala badagokio. (Adib.: Zoladura irristakorra dagoela adierazteko, dagokion ikurra erabiliko da, S.7.1. kodearekin batera -karatulan adierazten den bezala-, eta bat baino gehiago badaude, korrelatiboki zerrendatuko dira (S.7.2, S.7.3, etab.).

Plano hori garatzean, segurtasunari eta irisgarritasunari buruzko alderdi hauek aztertu ahal izango dira:

**IRISGARRITASUNAREKIN ZERIKUSIA DUTENAK**


- Oinezkoen sarea irisgarria den aztertzea.
- Oinezkoentzako biderik ez egotea.
- Espaloi estuak egotea.
- Beste oztopo arkitektoniko batzuk egotea (beherapenik, mailarik, edukiontzi irisgarririk eta abar ez egotea).
- Urbanizazioaren baldintzak: kaleak egoera txarrean edo urbanizatu gabe.
- Beste batzuk.

**SEGURTASUNAREKIN ZERIKUSIA DUTENAK**


- Zoladura irristakorra egotea.
- Irteerarik gabeko edo gaizki lotutako kaleak egotea.
- Ezkutuko ibilbideak edo ibilbide arriskutsuak izatea.
- Gaizki argizatutako edo argiztapen urriko zonak egotea.
- Abandonatutako guneak egotea.
- Loturarik gabeko guneak egotea.
- Tunelak eta oinezkoentzako gaineko pasabideak egotea.
- Hesitu edo itxi gabeko orubeak eta eraikinak egotea.
- Seinaleztapen desegokia.
- Beste batzuk.


**GEN2 PLANOAREN KARATULA PROPOSAMENA**


**EKIPAMENDU KOMUNITARIOREN ZONA /  
ZONAS DE EQUIPAMIENTO COMUNITARIO**

 Ekipamendu komunitarioko  
Equipamiento comunitario


**ESPASIO LIBREEN ZONA PUBLIKOAK /  
ZONAS PUBLICAS DE ESPACIOS LIBRES**


 Parkeak eta lorategiak  
Parques y jardines


 Oinezkoentzako guneak eta plazak  
Plazas y áreas peatonales


 Haurrentzako jolastokiak  
Áreas de juego infantiles


**KOMUNIKAZIOETARAKO ZONA PUBLIKOAK /  
ZONAS PUBLICAS DE COMUNICACIONES**


 Errepideak  
Carreteras


 Oinezkoentzakoak  
Petonales

 Kaleak  
Calle


 Oinezkoentzako tolerantziadunak  
Petonales con tolerancia

 Bideak  
Caminos


 Aparkaleku  
Parking


 Oinezkoen ibilbidea  
Itinerario peatonal


**ZONA PRIBATUAK /  
ZONAS PRIVADAS**


 Partzela privatuk  
Parcelas privadas


**IRISGARRITASUN PUNTU GATAZKATSUAK /  
PUNTOS CONFLICTIVOS ACCESIBILIDAD**

 **A.1.x** Oinezkoentzako biderik eza  
Ausencia de vías peatonales


 **A.2.x** Espaloi estuak  
Aceras estrechas


 **A.3.x** Arkitektura-oztopoak (ez dago beherapenik, mailarik...)  
Barreras arquitectónicas (ausencia de rebajes, peldaños...)


 **A.4.x** Urbanizazio erregularra edo egoera txarrean dagoena  
Urbanización regular o en mal estado


 **A.X.x** Bestelakoak  
Otros


**SEGURTASUN-PUNTU GATAZKATSUAK /  
PUNTOS CONFLICTIVOS SEGURIDAD**


 **S.1.x** Irteerarik gabeko edo konexio txarreko kaleak  
Calle sin salida, estrechas o con mala conexión


 **S.2.x** Ibilbide ezkutuak edo arriskutsuak  
Recorridos ocultos o peligrosos


 **S.3.x** Gaizki argizatutako edo argiztapen gutxi eremuak  
Zonas mal iluminadas o con iluminación escasa


 **S.4.x** Espazio abandonatuak  
Espacios abandonados


 **S.5.x** Loturarik gabeko espazioak  
Espacios inconexos

 **S.6.x** Hesitu edo itxi gabeko orube eta eraikinak egotea  
Existencia de solares y edificios sin vallar o cerrar

 **S.7.x** Zoladura irristakorra  
Pavimento resbaladizo

 **S.8.x** Seinaleztapen desegokia  
Señalización inadecuada

 **S.9.x** Garraio-sareko tunelak eta gaineko pasabideak  
Existencia de túneles y pasos elevados de la red de transporte

 **S.X.x** Bestelakoak  
Otros

### GEN3 PLANOA DIAGNOSTIKOA. HIRI DISEINUA

Hiri diseinua hainbat eskalatan aztertzen da: hiri plangintzaren eremutik, udalerriko erabileren banaketa egokiari dagokionez, gune publikoen diseinu egokiaren ikuspegiraino, erabilitako hiri altzariak barne, edo horien falta.

Planoan gune publikoen, ekipamenduen eta espazio libreen kokapena jaso behar da, erabilera xehatua zehaztuz. Zona pribatuei dagokienez, hiriguneko erabilera orokorren banaketa adierazten da.

Era berean, herriguneko hiri diseinuaren egungo egoerari buruzko analisia eta diagnostikoa egiteko balio duten hiri elementu eta erabilera ohikoenak identifikatzeko ikur batzuk daude, hala nola hiri altzarien elementuak (bankuak, farolak, itzaleko elementuak, paperontziak, zuhaitzak), emakumeak nabarmentzeko elementuak, saltoki motak eta zerbitzuetarako azpiegituretako zenbait elementu, hala nola komun publikoak, edukiontziak, iturriak eta wifi publikoa. Egon daitezkeen beste elementu batzuk identifikatzeko ikurrak ere badaude.

#### PUNTU GATAZKATSUAK

Hiri diseinuari lotutako puntu gatazkatsuak identifikatzen dira. Maizen diagnostikatzen diren puntu gatazkatsuak identifikatzen dira. Hala ere, gerta daiteke hain ohikoak ez diren beste batzuk hautematea; kasu horietarako, berariazko ikur bat dago.

Puntu gatazkatsu mota bakoitza ikur batekin eta identifikazio kode batekin identifikatzen da (U.1.x, U.1.x, U.2.x, etab.), eta, horri esker, puntu horiek lokalizatu eta aipa daiteke helburuaren deskribapenean, hala badagokio. (Adib.: Gaizki kokatutako ekipamendu bat dagoela adierazteko, dagokion ikurra erabiliko da, U.3.1. kodearekin batera. -karatulan adierazten den bezala-, eta bat baino gehiago badaude, korrelatiboki zerrendatuko dira (U.3.2, U.3.3, etab.).

Plano hori garatzean, hiri diseinuari buruzko alderdi hauek aztertu ahal izango dira:

#### ERABILEREN BANAKETA UDALERRIAN

- Saltokien banaketa egokia herrigunean.
- Herrigunean ondo banatutako egonlekuak egotea.
- Behar bezala kokatutako ekipamenduak.

#### HIRIKO GUNEEN DISEINUA

- Argiztapen egokia dute.
- Ondo orientatuta daude.
- Espazio libreek behar adina altzariak dituzte: eserlekuak, paperontziak, etab.
- Itzalguneak eta euritik babestutako zonak dituzte.
- Haur parke mugatuak egotea.
- Zirkuitu kardiosasungarriak egotea.


- Ondo konektatuta daude bide sarearekin.
- Orientazio ona dute.
- Funtzio anitzeko espazio libreak.
- Irisgarriak dira.
- Emakumearen ikusgaitasuna udalerriko gune publikoetan.
- Komun publikoak egotea.
- Wifi publikoa egotea.
- Ondo kokatutako edukiontziak.
- Iturriak egotea.

#### EKIPAMENDUAK

- Behar adina ekipamendu egotea haur, nerabe, gazte, adineko, elkarte, gizon eta emakumeen beharrak asetzeko.
- Banaketa ona herrigunean.
- Ondo konektatuta daude.
- Ondoan aparkalekuak dituzte.
- Ekipamendu malgu eta balioaniztunak ditu.
- Irisgarriak dira.



## GEN3 PLANOAREN KARATULA PROPOSAMENA



## GEN4 PLANOA DIAGNOSTIKOA. ERAGIN AREAK

Plano honek espazio librean, ekipamenduen, garraio geralekuen, saltokien eta abarren eragin areak aztertzen ditu; azken batean, herritarrek zerbitzuetara iristeko duten erraztasuna erakusten saiatzen da, dauden distantziaren arabera.

Plano horietan hiri bilbe erraztua ageri da oinarri gisa, eta komunikazio bideak baino ez dira bereizten dira, zerbitzuetarako irisgarritasuna aztertzen laguntzeko.

### AZTERTU BEHARREKO ALDERDIAK

#### HERRIGUNEKO EKIPAMENDUAK ETA ZERBITZUAK

- Espazio libre publikoak.
- Irakaskuntza ekipamenduak.
- Kirol ekipamenduak.
- Ekipamendu soziokulturalak.
- Erakundeen ekipamenduak.
- Erljio ekipamenduak.
- Osasun ekipamenduak.
- Garraio publikoa.
- Hirugarren sektoreko erabilerak.

#### ERAGIN AREAK MUGATZEKO IRIZPIDEAK

Apartatu honetan erabilitako irizpideak orientagarriak dira, eta modu justifikatuan egokitu ahal izango dira HAPO bakoitzean.

#### 1. Ekipamendu edo zerbitzu bakoitzaren puntu nagusiak definitzea

Ekipamendu/zerbitzu bakoitzak erdiko puntu bat izango du, planoan duen kokapena irudikatuzko (adibidez, eraikin baten ate nagusia edo parke baten erdigunea).

#### 2. Biztanleria kalteberenaren mugikortasunean oinarritutako eragin erradioa zehaztea, bi irizpide kontuan hartuta: joan-etorrietarako gomendatzen den gehieneko denbora eta ekipamendu edo zerbitzu bakoitza erabiltzeko premiaren maiztasuna.

Lekualdaketa gehieneko denbora zenbatesteko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- Oinez egindako joan-etorriak talde kaltebera bateko edo mugikortasun txikiagoko pertsona batek (adineko pertsona bat, haur orgatxo bat duen emakume bat, etab.) batez beste beharko lukeen denbora kontuan hartuta kalkulatu dira.
- Minutuko 40 metroko gutxi gorabeherako abiadura ezartzen da mugikortasun txikiagoko kolektiboentzat.
- Eragin area honela definituko da: erradio bat metrotan, joan-etorrietarako gomendatutako gehieneko denboraren arabera. Abiadura orientagarriak kontuan hartuta, joan-etorrietarako denbora hauek atera ditugu, gutxi gorabehera:
  - 200 m – 5 min
  - 350 m – 8 min
  - 500 m – 12 min
  - 750 m – 18 min
  - 1000 m – 25 min

Erabiltzeko maiztasunari dagokionez, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- Egunero erabiltzen diren espazio libreek eta ekipamenduek, hala nola supermerkatuek, hartzaindegiek eta antzekoek, erradio txikiagoak izango dituzte (200 -350 m).
- Maiz erabiltzen diren ekipamenduek, hala nola kirol guneek, mediku kontsultategiak eta antzekoek, tarteko erradioak izango dituzte (350 -500 m)
- Noizean behin erabiltzen diren ekipamenduek, hala nola udaletxeak, hilerriek, elizek eta antzekoek, erradio zabalagoak izango dituzte (750 -1000 m).

### 3. Eragin arearen irudikapen grafikoa


- Ekipamendu/zerbitzuaren erdiko puntuaren inguruan zirkulu zentrokideak marraztuko dira, aurreko ataleko analisiaren arabera definitutako erradioekin (200 m, 350 m, 500 m, 750 m, 1000 m, etab.).
- Oztopo fisikoak (ibaiak, errepideak, desnibelak) dituzten zonetarako, eragin areak dauden benetako loturen arabera (zubiak, oinezkoentzako pasabideak) doitu beharko dira.

#### PLANOAN APLIKATZEKO ADIBIDEA

Ekipamendua	Eragin erradioa	Irudikatzeko modua
• Haurrentzako jolasguneak	• 200 m	• 200 m-ko zirkulua erdiko puntuaren inguruan
• Supermerkatuak	• 200 m	• 200 m-ko zirkulua
• Mediku kontsultategia	• 350 m	• 350 m-ko zirkulua
• Kirol gunea	• 500 m	• 500 m-ko zirkulua



## GEN4 PLANOAREN KARATULA PROPOSAMENA



## 2.C. HAPOaren irizpideak eta helburuak hartzeko dokumentuan sartu beharreko irizpide eta helburu orokorrak

Aurrerapenaren ondoren, HAPOaren irizpideak eta helburuak hartzeko dokumentua egitean, helburuak genero ikuspegitik sartuko dira.

### HAPOAREN IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK HARTZEKO DOKUMENTUAN SARTU BEHARREKO IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK

HAPOaren helburu orokorretan genero ikuspegiari buruzko irizpideak eta helburuak sartuko dira, emakumeek eta gizonen udalerriko baliabideak baliatzeko eta eskuratzeko duten eskubidean berdintasuna sustatzeko.

Helburu horiek generoaren arabera sortuko den eraginari buruzko aurreiazko ebaluazio (GIEE) txostenaren 4. eta 7. apartatuan jaso dira.



## FASE 3: HASIERAKO ONESPENA

Hirugarren fasean, berdintasun neurriak HAPOan sartuko dira. Halaber, neurri horiek desberdintasunak ezabatzeko eta hiri espazioaren erabileran genero berdintasuna sustatzeko ekintza zehaztetan gauzatzeko ahalegina egingo da. Fase honetan berriazko ekintzak hartu eta dokumentazio grafiko berria sortuko dira esku hartzeen inplementazioa gidatzeko. Nolanahi ere, adierazitako ekintza batzuk ezin izango dira hirigintza jarduketan zehaztetan gauzatu; aitzitik, horiek zehazteak aukera emango du udalerraren kudeaketan eragina duten beste eremu batzuetatik gauzatzeko.

Fase honetan hauek sartzen dira:

**3.A** HAPOa genero ikuspegitik idazteari buruzko bigarren informazio saioa.

**3.B** Genero eraginaren ebaluazioa (GEE) GIEEaren edukia jasotzen du, eta HAPOan sartutako neurriak gehitzen ditu, puntu gatazkatsuak konpontzeko eta/edo hobetzeko eta identifikatutako helburuak lortzeko.

**3.C** Genero eraginaren ebaluazioari (GEE) erantsi beharreko dokumentazio grafikoa.

### GEN5. NEURRIAK

**3.D** HAPOan hartutako neurrien taula, helburuak genero ikuspegitik betetzeko.

**3.E** HAPOan sartu ezin diren gaiak identifikatzea, gero ekintza plan baten bidez garatzeko.

### 3.A. HAPOa genero ikuspegitik idazteari buruzko bigarren informazio saioa.

HAPOa idazteko fase honetan, herritar guztiei dei egingo zaie HAPOren analisisan eta diagnostikoan hautemandako alderdiak genero ikuspegitik hobetzeko edo zuzentzeko HAPOn ezar daitezkeen neurriak azaltzeko. Informazio saio hori HAPOaren dokumentua herritarrei aurkeztearekin

batera egin daiteke, hasierako onespeneren ondoren jendaurrean jartzeko epean.

### 3.B. Genero eraginaren ebaluazioa (GEE)

Dokumentu honetan, generoaren arabera sortuko den eraginari buruzko aurretzeko ebaluazio (GIEE) txostenaren edukia eta diagnostikoan identifikatutako berdintasun helburuak lortzeko ezarri beharreko berariazko neurriak jasotzen dira. Neurri horien helburua da hautemandako arazoak konpontzea eta gune publikoa erabiltzeko baldintzak hobetzea, bai emakumeentzat, bai gizonentzat.

#### GENERO ERAGINAREN EBALUAZIOA (GEE)

Generoaren arabera sortuko den eraginari buruzko aurretzeko ebaluazio (GIEE) txostenean jasotako puntuez (1-7) gain, GEEak 8. PUNTUA gehitu du: HAPO-AN HARTUTAKO NEURRIAK, DESBERDINTASUNAK EZABATZEKO ETA EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA SUSTATZEKO.

#### 8. HAPO-AN HARTUTAKO NEURRIAK, DESBERDINTASUNAK EZABATZEKO ETA EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA SUSTATZEKO.

GIEEan egindako diagnostikoaren ondoren, diagnostikoan identifikatutako berdintasun helburuak lortzeko ezarri beharreko berariazko neurriak jasoko dira HAPOan.

Apartatu hau garatzeko, komenigarria da alde aurretik GEN5 planoaren egitea (NEURRIAK). Plano hori 3.C apartatuan deskribatzen da (HAPOan hartutako neurriei erantsi beharreko dokumentazio grafikoa), baita 3.D apartatuan azaldutako neurrien taulan ere.

Neurriak funtsezko eremu batean edo batzuetan (D, E, F edo G) hobekuntzak eragiten dituzten zona jakin bateko jarduketari buruzkoak izan daitezke (zona horiek GEN5 planoan identifikatuko dira), edo hirigintza araudian jasotzen diren funtsezko eremuei eragiten dieten neurriak izan daitezke (A, B edo C).

Neurri bakoitzak hobekuntza gertatzen den funtsezko eremuak identifikatuko ditu.

#### FUNTSEZKO EREMUAK:

- A. **Udalerraren ereduak.** Udalerraren ereduak familia eta lana uztartzea, dauden hiri espazioak finkatzea, garapenak hazkunde demografikora egokitzea, etab lehenesteko hartutako neurrien deskribapena.
- B. **Bizitegi eskaintza gaur egungo egoerara egokitzea.** Bizitegi eskaintza egungo eskarira egokitze hartutako neurrien eta jarduketaren zerrenda.

- C. **Arau zehaztapenak.** HAPOan tipologiak familia eta lan ereduera egokitze hartutako neurriak deskribatzea. Lanpostu gehiago eta etxebizitzatik hurbil dauden zerbitzuak sortzen dituzten erabilerak agertzea, lana eta familia bateragarri egitea erraztea eta merkataritza, egoitza eta zerbitzu jarduerak modu orekatuan banatzea, funtzio bakarreko zonak murriztuz eta espazioen erabilera askotarikoa bultzatuz, sustatzen duten jarduketak eta neurriak deskribatzea.
- D. **Irisgarritasuna eta segurtasun pertzepzioa.** Jarduketa deskribatzea, hala nola oinezkoentzako gune arriskutsuak kentzea, espaloien ikuspena, segurtasun pertzepzioa edo irisgarritasuna hobetzea.
- E. **Udal ekipamenduak eta zerbitzuak.** Udal ekipamendu eta zerbitzuetako jarduketa eta neurrien deskribapena.
- F. **Gune publikoak eta zerbitzuetarako azpiegiturak.** Hauek deskribatzea: zerbitzuetarako ekipamendu eta azpiegiturarako jarduketa eta neurrien, genero rolen eta ezaugarri fisikoen arabera pertsonen premiei hobeto erantzun dieten eta familia eta lana bateragarri egitea erraztuko duten hiri espazioak sortzea, eta gune publikoaren diseinuaren ezaugarriak aldatzea, gune hori egonleku, atsedonleku eta aisialdirako leku gisa erabiltzea erraztuko duena (plazak, pasealekuak, parkeak, haur jolasak...).
- G. **Mugikortasuna.** Udalerriko eta udalerraren eta beste herriguneeen arteko oinezkoen mugikortasunari lotutako hainbat jarduketa eta neurri proposatzen dira.

#### ADIBIDEAK:

- **1. NEURRIA:** a.1 azpizonako araudiak erabilera bateragarritzat hartzen ditu saltokiak. C funtsezko eremuko hobekuntza. GEN5 planoan jaso gabe.
- **2. NEURRIA:** Egikaritze unitatean sartutako bidea handitzea eta urbanizatzea, espazio libreak lagata. Hobekuntzak D, F eta G funtsezko eremuetan. GEN5 planoan DA.2, DS.2, F.2 eta G.2 gisa identifikatuak -karatulan adierazten denez-.



### 3.C. Genero eraginaren ebaluazioari (GEE) erantsi beharreko dokumentazio grafikoa

Generoaren arabera sortuko den eraginari buruzko aurretiazko ebaluazio txostenean (GEN1, GEN2, GEN3 eta GEN4) jasotako dokumentazio grafikoaz gain, GEEak GEN5 plano sartu du. NEURRIAK

GEN5 PLANOA NEURRIAK	
<p>Plano honetan, HAPOak funtsezko eremuetan (D, E, F eta G) diagnostikoan hautemandako alderdiak zuzentzeko edo hobetzeko neurriren bat proposatzen duen areak grafiatzen dira. Area horiek jarduketa zehatzetara eramango dira, eta horien antolamendua eta kudeaketa araudian eta antolamendu planoetan jaso beharko dira.</p> <p>Oinarrizko plano gisa, KALIFIKAZIO XEHATUAREN plano hartzen da (NORPLANeko 4. SERIEA).</p> <p><b>HOBEKUNTZA JARDUKETAK ZEDARRITZEA</b></p> <p>Plano honek hobekuntza jarduketa hauek identifikatzen ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>DA.x.</b> Irisgarritasuna hobetzea.</li> <li>• <b>DS.x.</b> Segurtasun pertzepzioa hobetzea.</li> <li>• <b>E.x.</b> Udal ekipamendu eta zerbitzuak hobetzea.</li> <li>• <b>F.x.</b> Gune publikoak eta zerbitzuetarako azpiegiturak hobetzea.</li> <li>• <b>G.x.</b> Mugikortasuna hobetzea.</li> </ul> <p>Hobekuntza jarduketa bakoitza zedarritzen duen lerro eten batekin eta identifikazio kode batekin identifikatzen da (DA.x., DS.x., E.x., eta abar). Funtsezko eremuetako hobekuntza jarduketak dagokien neurriarekin lotzen ditu kode horrek, kontuan hartuta hainbat eremutakoa izan daitekeela. (Adib.: 2. NEURRIARI (Egikaritze unitatean sartutako bidea handitzea eta urbanizatzea, espazio libreak lagata) dagozkion hobekuntza jarduketak adierazteko, DA.2, DS.2, F.2 eta G.2 kodeak erabiliko dira).</p>	

### GEN5 PLANOAREN KARATULA PROPOSAMENA

**BIZITEGI AZPIZONA PRIBATUAK / SUBZONAS PRIVADAS RESIDENCIALES**

a1	Hirigune zaharrak Asentamientos antiguos urbanos	a51	Garapen baxuko irekia Abierta de bajo desarrollo
a2	Landa herrigune zaharrak Asentamientos antiguos rurales	a52	Familia bakarrekotatik Unifamiliar adosada
a3	Zabalgunea edo mistoa Ensanche o mixta	a61	Familia bakarrekotatik Unifamiliar
a4	Eraikin irekia Edificación abierta	a62	Bi familiakoa Bifamiliar

**INDUSTRIA AZPIZONA PRIBATUAK / SUBZONAS PRIVADAS INDUSTRIALES**

b11	Intentsiboa Intensiva	b2	Berezia Especial	b3	Parke teknologikoa Parque tecnológico
b12	Isolatua Aislada	b41	Upeltegi tradizionala Bodega tradicional	b42	Upeltegi isolatua Bodega aislada

**HIRUGARREN SEKTOREKO ERABILEREN AZPIZONAK / SUBZONAS DE USOS TERCIARIOS**

c1	Generikoa edo arrunta Genérico o común	c21	Saltoki arruntak Comercios comunes		
c22	Saltoki handietako komertziala Comercial de grandes superficies				
c3	Ostalari-tza Hostelería	c4	Bulegoak Oficinas	c5	Enpresa parkeak Parques empresariales

**EKIPAMENDU KOMUNITARIOEN AZPIZONA / SUBZONAS DE EQUIPAMIENTO COMUNITARIO**

d	Pribatuak / Privadas	5	Kirola / Deportivo
g	Publikoak / Públicas	6	Osasuna / Sanitario
1	Generikoa / Genérico	7	Gizarte zerbitzuak / Servicios sociales
2	Irakaskuntza / Docente	8	Zerbitzu publikoak / Servicios públicos
3	Kultura / Cultural	9	Ertijioa / Religioso
4	Jolasak / Recreativo	10	Erakundeak / Institucional

**KOMUNIKAZIOETARAKO AZPIZONA PUBLIKOAK / SUBZONAS PÚBLICAS DE COMUNICACIONES**

e11	Errepedeak Carreteras	e21	Oinezkoentzakoak Peatonales
e12	Kaleak Calles	e22	Oinezkoentzako tolerantziadunak Peatonales con tolerancia
e13	Aparkaleku eremuak Áreas de aparcamiento	e3	Trenbideak Ferrovias

**ESPazio LIBREEN AZPIZONA PUBLIKOAK / SUBZONAS PÚBLICAS DE ESPACIOS LIBRES**

f11	Parkeak eta lorategiak Parques y jardines	f13	Oinezkoentzako guneak eta plazak Plazas y áreas peatonales
f12	Haurrentzako jolaslekuak Áreas de juego de niños	f14	Ezpondak eta ertz espazioak Taludes y espacios de borde

**ZERBITZU AZPIEGITUREN AZPIZONA PUBLIKOAK / SUBZONAS PÚBLICAS DE INFRAESTRUCTURAS DE SERVICIOS**

h1	Ur-hornidurakoak Abastecimiento de agua	h2	Ur-saneamendukoak Saneamiento de agua
h3	Argindar ekoizpen eta hornidurakoak Producción y suministro de energía eléctrica		
h4	Hondakinak, gasa, teleko, beste batzuk... Residuos, gas, teleco, otras...		

**AZALEKO JABARI PUBLIKO HIDRAULIKOTARAKO AZPIZONAK / SUBZONAS DE DOMINIO PÚBLICO HIDRAULICO SUPERFICIAL**

i	Ur jabari publikoa Dominio público hidráulico
---	--

**JARDUKETAK MUGATZEA / DELIMITACIÓN DE ACTUACIONES**

DA.x	Irisgarritasuna hobetzea Mejora de accesibilidad
DS.x	Segurtasun-pertzepzioa hobetzea Mejora de percepción de seguridad
E.x	Udal-ekipamendu eta -zerbitzuak hobetzea Mejora de equipamientos y servicios municipales
F.x	Espazio publikoak eta zerbitzu-azpiegiturak hobetzea Mejora de espacios públicos e infraestructuras de servicio
G.x	Mugikortasuna hobetzea Mejora de movilidad

### 3.D. HAPOan hartutako neurrien taula eta horiek funtsezko eremuekin duten harremana, helburuak genero ikuspegitik betetzeko

Taula hori HAPOan sartu beharreko Generoaren Eraginaren Ebaluazioari txertatuko da, eta proposatutako neurriak biltzen, laburbiltzen eta diharduten funtsezko eremu bakoitzarekin eta lortu nahi den helburuarekin lotzen ditu.

Neurri jakin batek helburu batean baino gehiagotan eragin dezake eta, era berean, helburu bakarra lortzeko neurri bat baino gehiago izan daitezke beharrezkoak.

FASE 3: HASIERAKO ONESPENA			
Genero eraginaren ebaluazioa (GEE)			
NEURRIAK	HOBKUNTZA GERTATZEN DEN FUNTSEZKO ESPARRUAK	LORTUTAKO HELBURUAK	JASOTZEN DUEN DOKUMENTUA
1. neurria	Hobekuntza C funtsezko eremuan	A1 helburua	Araudia
2. neurria	Hobekuntza D, F eta G funtsezko eremuan	D1 helburua D2 helburua	GEN5 planoak: DA.2, DS.2 F.2 eta G.2 ...
3. neurria	Hobekuntza...	...	...
4. neurria	...		
...			

### 3.E. HAPOan sartu ezin diren gaiak identifikatzea

Apartatu hau Generoaren Eraginaren Ebaluazioari erantsiko zaio azken apartatu gisa, eta, bertan, alde aurreko ebaluazioan hauteman diren baina, jarduketan eremua gainditzen dutelako, HAPOan neurririk proposatu ez zaien gaiak jasotzen dira.

BESTE GAI BATZUK IDENTIFIKATZEA
<p>HAPOko zehaztapenetan sartzen ez diren eta aurreko ebaluazioan jaso diren alderdi guztiak sartuko dira. Honako gai hauek dira, besteak beste:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>ACC.1</b> Herriguneetako trafikoaren abiadura arautzea</li> <li>• <b>ACC.2</b> Seinaleztapena</li> <li>• <b>ACC.3</b> Zirkulazioaren noranzkoa erregulatzea</li> <li>• <b>ACC.4</b> Udalerrian dauden eraikinetan emakumeentzako kirol eta kultura jarduerak sortzea</li> <li>• <b>ACC.5</b> Lehendik dauden eraikin/gune publikoetan oztopo arkitektonikoak kentzea</li> <li>• <b>ACC.6</b> Emakumeari ikusgaitasun handiagoa ematea, kaleak/eraikinak udalerriko emakume ospetsuen izenekin izendatuz</li> <li>• <b>ACC.7</b> Bankuen eta paperontzien kopurua handitzea</li> <li>• <b>ACC.8</b> Hiri altzariak hobetzea</li> <li>• <b>ACC.9</b> Autobus geralekuen kokapena eta hobekuntza</li> <li>• <b>ACC.10</b> Autobus geralekuen maiztasuna handitzea</li> <li>• <b>ACC.11</b> Beste batzuk...</li> </ul>



## ERANSKINA. HAPO-ARI BURUZKO HERRITARREN INKESTA, GENERO IKUSPEGITIK

### HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRARI BURUZKO HERRITARREN INKESTA, GENERO IKUSPEGITIK

Inkesta hau izengabea da.

Ematen diguzun informazioak arazoak hautemateko eta/edo plan orokorrean iradokizunak egiteko balioko ditu.

Udalak eskerrak ematen dizkizu zure laguntzagatik.

#### PARTE HARTZAILEAREN DATUAK

<b>Adina</b>	18 - 25 urte	<input type="checkbox"/>	<b>Sexua</b>	E	<input type="checkbox"/>
	25 - 35 urte	<input type="checkbox"/>		G	<input type="checkbox"/>
	35 - 45 urte	<input type="checkbox"/>		Beste batzuk	<input type="checkbox"/>
	45 - 55 urte	<input type="checkbox"/>			
	55 - 65 urte	<input type="checkbox"/>			
	65 urtetik gora	<input type="checkbox"/>			
<b>Bizilekua</b>	<b>Udalerrian</b>			Bai	<input type="checkbox"/>
				Ez	<input type="checkbox"/>
<b>Lan egoera</b>	Ikasten	<input type="checkbox"/>	Ordaindu gabeko lana - etxekoa	<input type="checkbox"/>	
	Lanean	<input type="checkbox"/>	Pentsioduna edo erretiratua	<input type="checkbox"/>	
	En Langabezian	<input type="checkbox"/>			
<b>Lan egiten baduzu...</b>	<b>Udalerriko herrigunetik kanpo?</b>			Bai	<input type="checkbox"/>
				Ez	<input type="checkbox"/>
	<b>Zenbat denbora behar duzu joan-etorrian? .....</b>				
<b>Nola joaten zara hara? .....</b>					

#### A. UDALERRIAREN EREDUA

1. Zure ustez, zure udalerriak gertu eta ondo lotuta ditu bizitegi guneak, espazio libre publikoak, ekipamenduak eta jarduera ekonomikoetarako zonak?

.....  
.....  
.....

2. Zure ustez, zer hazkunde mota da egokia udalerrirako (jasangarria, hedapena, finkatzea)?

.....  
.....  
.....  
.....

#### B. BIZITEGI ESKAINTZAREN EGOKITZAPENA

3. Nola baloratzen duzu udalerriko eraikinen dentsitatea? Handitu, murriztu edo berdin utzi beharko litzateke?

.....  
.....  
.....

4. Udalerrian ba al dago egungo eskariari erantzungo dion etxebizitza eskaintza nahikorik?

.....  
.....  
.....

5. Zure ustez, zer gabezia ditu udalerriak bizitegi tipologiei dagokienez?

.....  
.....  
.....  
.....

#### C. ARAU ZEHAZTAPENAK

6. Nola egokitu daitezke hobeto udalerriko etxebizitzak eta komunitate ekipamenduak gaur egun dauden familia egituretara?

.....  
.....  
.....

7. Nola deskribatuko zenituzke zure udalerrian dauden familia egiturak (familia nuklearrak, hedatuak, guraso bakarrekoak, etab.)?

.....  
.....  
.....

8. Zure ustez, zure herriguneak bizitegi, merkataritza eta aisia erabileren nahasketa ona du?

.....  
.....  
.....

9. Area jakin batzuetan jarduera ekonomikoak pilotzeak komunitateari mesede edo kalte egiten diola uste duzu?

.....  
.....  
.....

#### D. SEGURTASUN PERTZEPZIOA ETA IRISGARRITASUNA

10. Ba al dago zona ez segururik, puntu gatazkatsurik, ibilbide ez segururik, udalerrian ihesbiderik ez duen lekurik, hala nola tunelik, kalezulerik, leku bakartirik, gaizki argiztaturik, landaretza gehiegi duenik...? Adierazi zein diren:

.....  
.....  
.....

11. Udalerrian ba al dago gaizki mantendutako tokirik edo toki zikinik?

.....  
.....  
.....

12. Larrialdi batengatik edo antzekoagatik laguntza behar izanez gero: Adierazi ikuspen arazoak edo laguntza eskatzeko zailtasunak dituzten lekuak, mugikorrerako estaldurarik ez dutenak:

.....  
.....  
.....

13. Adierazi zein lekutan falta diren ...

- Jarduera edo erabileren nahasketa (hutsik dauden beheko solairuak...):

.....  
.....  
.....

- Oinezkoen pasabideak (nahikorik ez, egoera txarrean, seinale desegokiak):

.....  
.....  
.....

14. Adierazi landaretzak arazo hauetakoren bat eragiten duen, eta non dagoen:

- Guneei argiztapen naturala kentzen die:

.....  
.....  
.....

- Espazio librearen ikuspena kentzen du (ezkutatzeko leku posibleak):

.....  
.....  
.....

15. Ba al dago zona arriskutsurik udalerrian? Adierazi zein diren:

- Espaloirik eza edo oso estuak:

.....  
.....  
.....

- Gune labainkorak edo aldapatsuegiak:

.....  
.....  
.....

- Naturagune ez seguruak (ibai ertzak, abandonatutako zonak...):

.....  
.....  
.....

16. Herrian ba al dago arrapalarik gabeko eskailerak dituen tokirik?

Bai  Ez

Adierazi non dauden: .....

.....  
.....

17. Herrian ba al dago espaloirik oinezkoentzako pasabideetan zintarria jaitsi gabe?

Bai  Ez

Adierazi non dauden: .....

.....  
.....

18. Herrian ba al dago aparkatutako autoek pasabidea oztopatzen duten tokirik?

Bai  Ez

Adierazi non dauden: .....

.....  
.....

19. Ba al dago udalerrian pasabidea oztopatzen duen objekturik, hala nola zuhaitzik, farolarik, postontzirik, paperontzirik, edukiontzirik...?

Bai  Ez

Adierazi non dauden eta zein den haien arazoa: .....

.....  
.....

20. Udalerrian ba al dago gurpil aukiak eta/edo haurtxoen orgatxoak erabiltzen edo garraiatzen dituzten pertsonentzako irisgarritasun arazoak sortzen dituen tokirik?

Bai  Ez

Adierazi non dauden: .....

.....  
.....

#### E. UDAL EKIPAMENDUAK ETA ZERBITZUAK

21. Zure ustez, nahikoa al da herriguneetan saltoki txikien eskaintza familia eta familia bateragarri egitea eta auzokideen arteko loturak errazteko?

.....  
.....  
.....

22. Adierazi egokia eta nahikoa deritzozun udalerriko ekipamenduen (osasuna, irakaskuntza, kultura, administrazioa, kirola, gizartea, etab.) eta zerbitzuen mailari:

Egokia  Desegokia

Adierazi ezarri edo hobetu beharreko ekipamendua: .....

.....  
.....

23. Ekipamenduak irisgarriak al dira?

Bai  Ez

Adierazi zein ez diren eskuragarriak eta zein arazo duten: .....

.....  
.....

24. Ekipamenduek ba al dute aparkalekurik mugitzeko zailtasunak dituztenentzat?

Bai  Ez

Adierazi zeinek ez: .....

.....  
.....

25. Adierazi zerbitzu publikorik (komunik) dagoen edo nahikoak diren:

Bai  Ez

Adierazi non ezarriko zenituzkeen: .....

.....  
.....

26. Adierazi kaleetan eta espazio libreetan haurrak zaintzeko gunerik dagoen edo nahikoak diren:

Bai  Ez

Adierazi non ezarriko zenituzkeen: .....

.....  
.....

27. Adierazi kaleetan eta espazio libreetan bankurik dagoen edo nahikoak diren:

Bai  Ez

Adierazi non ezarriko zenituzkeen: .....

.....  
.....

28. Adierazi espazio libre estali nahikorik dagoen:

Bai  Ez

Adierazi non ezarriko zenituzkeen: .....

.....  
.....

#### F. GUNE PUBLIKOAK ETA ZERBITZUETARAKO AZPIEGITURAK

29. Dauden espazio libreak (plazak, parkeak, pasealekuak...)

• Nahikoak dira?

Bai  Ez

Adierazi non kokatuko zenituzkeen gunerik berriak: .....

.....  
.....

• Tamaina egokia dute?

Bai  Ez

Adierazi zeintzuk handituko zenituzkeen: .....

.....  
.....

• Elkarguneak dira ala erabilerarik gabeak eta hondarrekoak?

Bai  Ez

Adierazi zure ustez nola izan litezkeen erabilgarriagoak: .....

.....  
.....

• Ondo zainduta daude?

Bai  Ez

Adierazi zeintzuk behar duten mantentze lan gehiago eta zer egin beharko litzatekeen: .....

.....  
.....

G. MUGIKORTASUNA

30. Nola mugitzen zara udalerrian?

Oinez  Bizikletaz  Autoz  Garraio publikoz

31. Mugitzen zaren moduaren arabera, adierazi zure ustez segurua ez den, eta zein toki edo tartetan

.....  
.....  
.....

32. Udalerrri barruko mugikortasunari dagokionez, bestelako konexio moduren bat proposatuko zenuke?

Bai  Ez

¿Non eta nola? .....

33. Ingurune naturaleko mugikortasunari edo aisialdiarekin eta osasunarekin lotutako ibilbideei dagokienez (pasealekuak, kirol zirkuituak...), beste konexio moduren bat proposatuko zenuke?

Bai  Ez

¿Non eta nola? .....

34. Adierazi aparkatzeko zailtasunik duzun, eta non:

Bai  Ez

.....  
.....

35. Adierazi zure ustez garraio publikoan gabeziarik dagoen:

Bai  Ez

Zein garraio bidetan? .....

H. GENERO IKUSPEGIA APLIKATZEAREN GARRANTZIA IKUSARAZTEA ETA HARI BURUZKO GIZARTE KONTZIENTZIAZIOA SUSTATZEA

36. Interesgarria irudituko litzaizuke kaleak edo gune publikoak, hala nola kiroldegi sortu berriak, udalerrian garrantzitsuak izan diren edo diren emakumeen izenarekin izendatzea?

Bai  Ez

37. Nor edo nortzuk proposatuko zenituzke?

.....  
.....  
.....

BESTE GAI BATZUK

38. Zer aldatuko zenuke zure udalerrian?

.....  
.....  
.....

39. Garrantzitsutzat jotzen dituzun eta galdetegian galdetu ez zaizkizun gaiei dagokienez, ba al duzu HAPO berriari kontuan hartu beharreko beste ekarpenik, informaziorik, etab.?

.....  
.....  
.....

40. "Hirigintza inklusiboarekin" zerikusia duten oraingo arazoak eta aurreikus daitezkeenak definitzeko balia dezakezu eremu hau:

.....  
.....  
.....



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava